

UDA BARRIA.



ENE ADISKIDE ON ANTONIO TRUEBA JAUNARI.

Negu baltzean atso bat legez zan izatea,
Orain dakusgu burua zabal dakarrela,
Apainduagaz bere ulleak neskachen gisan,
Icharopenez gorputza jantzi oi dabela.

Ikustekorik ikusgarrien oraiñ au dogu;
Begira daigun kanpoetara gaur bestela,
Zelan dagozan jayorik milla lora mueta,
Euren lurrunaz atseginduten gaituela.

Aisea dator gaur bigunago len baño emen,
Gozogarri da bat jarritea bera artzen,
Zeñen bagetan chori politak egan dabiltzaz,
Uda barria etorri dala iragarten.

Ontziak doaz zabalduagaz bela zuriak,
Ekach gaiztoak ez dauz len legez bildurtuten,
Amerikara joan zirean egazti asko,
Asirik dagoz, barriro onuntz biurtuten.

Artzainak dabez chilibituak ur korrontaren,
Alboko landan kerizpechotan soñututen,
Auntzkumak eta bildots guriak dantzan egiñaz,
Emoten dabe zer eldu jakun adituten.

Chal ta moñalak salto ta brinkoz besteen gisan,

Gogo argia deuskue bere erakusten,
Leyak kiskaldu zituzan lurra nekazariak,
Layez ditu itzuliagaz astinduten.

Egun sentiak ezotuten dauz urrezko perlaz,
Lurra agertu dituzan lora ta bichiak,
Dirudienak egon dirala len ezkutuan,
Ikusi daizan uda barrian Eguzkiak.

«Ongi etorri» esaten deutse Errege bati
Oi jakon legez landara samur aĩn guriak,
Eta besteak zeinbat gorago igoten daben,
Obetoago ezarten deutsez bi begiak.

Agurak bere bota dituez kapa lodiak,
Ikusten dira gaur chairoago kaleetan,
Eta atsoak bizkor bizkorrik lengo aldean,
Ez daukelako ainbeste sorki gorputzetan.

Gazteak barriz poztuten dira ezin geyago,
Euren gogoa dakarrelako piestetetan,
Eiza zaleak oia ichirik goišetik doaz
Ibilte arren erbi atzean mendietan.

Ugarāsoak¹ asirik dagoz kar, kar, egiten,
Chindurri piñak abiau dira bearrean,
Burrundaraka erleak dabiltz lorarik lora,
Eztigintzako egoki diran gei atzean.

Kukuak ku, ku, zozoak zor, zor, negutak chuiñ chuiñ,
Birigarroak barriz tantaien gallurrean,
Kantetan dabe danak guztiak etorri dala
Uda barria negu baltzaren ondorean.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.



(1) Ugarāsoak=igelak.